

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LASARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Hasierako onespena ematea Lasarte-etxea zentro sozialaren instalazioak txoko moduan erabiltzea arautzen duen ordenantzari**

Kontzeju honek, 2019ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen Lasarte-etxea zentro sozialaren instalazioak txoko moduan erabiltzea arautzen duen ordenantza ezartzea eta onestea. Jendaurrean jartzen da, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak idatziz egiteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat emango da ordenantza hori.

Lasarte, 2019ko ekainaren 19a

*Lehendakaria*

*JOSE IGNACIO MARTINEZ DE ICAYA*